

Euskadiko Merkataritza Ganberen osoko bilkurarako 2018ko hauteskundeak

Osoko bilkurako kideak aukeratzeko botazioak ekainaren 6an egingo dira

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 18an. Atzo, apirilaren 17an, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo Sailburuordearen 2018ko apirilaren 6ko Ebazpena argitaratu zen EHAA. Bertan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberetako gobernu organoak berritzeko hauteskundeak deitu dira. Korporazio horietako osoko bilkuretako kideak aukeratzeko botazioak 2018ko ekainaren 6an egingo dira.

Hauteskunde horietan parte hartzera deituak daude Euskal Autonomia Erkidegoko enpresak, denak daudelako ordezkatuak Euskadiko Merkataritza Ganberetan. Enpresek osoko bilkurako kideak aukeratu ahalko dituzte, eta enpresak aukeratuak izan ahalko dira.

Osoko bilkura Merkataritza Ganberen gobernu eta ordezkari organo goren da.

Ganbera	Kide kp.	A TALDEA	B TALDEA	C TALDEA
		Sufragio aske, zuzen, berdin eta sekretuaren bidez	Enpresa-erakundeek proposatuta	Borondatezko ekarpenik handienaren bidez

Araba	36	24	5	7
Bilbo	60	40	8	12
Gipuzkoa	60	40	8	12

Taldeak

Ganberen hautesle-errolak, bere baitan atalka, taldeka eta kategoriaka sailkatuak dauden hautesle guztiak barne hartzen ditu, lurralde bakoitzean sektore ezberdinek duten garrantzi ekonomikoa kontuan izanik.

Arabako Ganbera

Arabako Ganberak 28.319 hautesle ditu, hamar taldetan banatuak: 685 Energia eta Uraren, Energetikoak ez diren Produktu Mineralen eta Industria Kimikoaren taldekoak dira; 1.039 Metalen Industria-transformatzailearen eta Doitasunezko Mekanikaren taldekoak; 1.175 Beste Manufaktura-industria batzuen taldekoak; 4.270 Eraikuntzaren

taldekoak; 1.455 Handizkako Merkataritzaren taldekoak; 5.837 Txikizkako Merkataritzaren taldekoak; 3.210 Elikadura, Ostatatze eta Konponketa zerbitzuen taldekoak; 1.755 Garraio eta Komunikazioen taldekoak; 962 Finantza erakundeen eta Aseguruen taldekoak; eta 7.931 Beste Zerbitzu batzuen taldekoak.

Bilboko Ganbera

Bilboko Ganberako hautesle-errolak, bere baitan taldeka eta kategoriaka sailkatuak dauden hautesle guztiak barne hartzen ditu. Ganberak 84.113 hautesle ditu, lau ataletan banatuak: 31.148 Merkataritza eta Ostalaritzaren atalekoak dira, 32.082 Zerbitzuen atalekoak, 20.671 Industriaren atalekoak, eta 212 Nabigazioaren atalekoak.

Gipuzkoako Bazkunea

Gipuzkoako Bazkunea hautesle-errolak, bere baitan taldeka eta kategoriaka sailkatuak dauden hautesle guztiak barne hartzen ditu. Ganberak 68.409 hautesle ditu, bost ataletan banatuak: 4.857 Industria, Energia eta Beste jarduera batzuen atalekoak dira, 8.545 Eraikuntzaren atalekoak, 18.433 Merkataritza eta Ostalaritzaren taldekoak, 3.194 Nabigazio eta Garraioaren atalekoak, eta 33.380 Zerbitzuen atalekoak.

Gobernu Organoen eraketa

Euskadiko Ganberetako osoko bilkura berriak eratzeko saioa Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzak ezarriko duen datan egingo da, botazioak amaitu, emaitzak egiaztatu, aukeratu diren kideak izendatu eta kide horiek kargua eskuratu ondoren. Aipatu den bileran, osoko bilkurako kideek, Lehendakaria eta Batzorde Betearazleko karguak aukeratuko dituzte beraien artean.

Eratzeko osoko bilkura **uztailaren 13an** egingo da.

HAUTESKUNDE-EGUTEGIA	
-----------------------------	--

Apirilaren 17a	Hauteskunde-deialdiaren argitalpena
Apirilaren 18tik maiatzaren 2ra arte	Hautagaien aurkezpena
Apirilaren 18tik maiatzaren 16ra arte	Posta bidezko botoa eskatzea
Maiatzaren 9a	Hautagaitzak izendatzeko azken eguna
Maiatzaren 23a	Posta bidezko botorako dokumentazioa bidaltzeko azken eguna
Ekainaren 5a	Hauteskunde-batzordeak posta bidezko botoa jasotzeko azken eguna
Ekainaren 6a	Hauteskundeak egitea

**Uztailaren 13a baino
lehen**

**Eratzeko osoko bilkura eta Lehendakaria eta
Batzorde Betearazleko karguak aukeratzea**

Informazio gehiago:

www.camaradealava.com

www.camarabilbao.com

<http://www.camaraqipuzkoa.com/eu/>